Kantuaren audioa eta bideoklipa
hemendik jaitsi dezakezue
oarsoirriak.net/bideoklipa/

Animo! Kanta eta dantza
gogo biziz, irriz......!!!

Irrien Lagunak Oarsoaldean

# Irrimeria

## Ipuinak egia bihurtuz

**Lehenengo zatia:**

Hizkuntzaren itsasoan
kantuz doaz batelerak
horrelako gidariak
behar ditu-ta euskerak.

Maialen ta Xanti biak gogotsu
hortxe hasi dira dantzan
gure hizkuntza noizbait erraldoi
izango den esperantzan.

Euskaraz bizi, bai!Gu garena azaldu nahi!
Euskaraz bizi, bai!Denok pozik eta alai-alai!

**Estribilloa:**

Umeak heldu eta helduak umetu
jolastu nahi dunak aitzakirik eztu
amalurrak ama-hizkuntza du bere esku
biek beti izango gaituzte gu gertu.

**Bigarren zatia:**

Trapujale, tripazale
dela denok badakigu
baina euskera maite duenez
bizi-bizirik utzi du.

Intxixuak eta sorginak
sua estimatzen dutelako
euskeraren garra ez itzaltzeko
hitz egiten dute asko.

Euskaraz bizi, bai!Etxean, kalean non-nahi
Euskaraz bizi, bai! Etorkizuna dugu gure zai!

**Estribilloa:**

Umeak heldu eta helduak umetu
jolastu nahi dunak aitzakirik eztu
amalurrak ama-hizkuntza du bere esku
biek beti izango gaituzte gu gertu



Umeak heldu eta helduak umetu

Irrien Lagunak Oarsoaldean

# Irrimeria

**Abenduaren 1ean, Lezon**

| | |
|---|---|
| 11:30 | **Ongietorria** Oiloirriren aurkezpena, zanpantzarrak, Irrien lagunen dantza, bertsoak,... Herriko plazan |
| 11:45 | **Txupina botatzera.** Andreonera kalekiran joango gara Andreone liburutegian |
| 12:00 | **Entzierroa** Andreonetik plazara eta handik Txerrimuñora |
| 12:30 | **Buruhandi eta erraldoien kalejira** Herrian zehar |
| 13:30 | **Bazkaria** Kiroldegian |
| 15:30 | **Familia jolasak** Saldise plazan |
| 16:30 | **Erromeria** Saldise plazan |
| 17:30 | **Txokolate-jana** Saldise plazan |

Oharrak: Irrien lagunon zapiak jantzita joango gara irrimerira
Norberak bere bazkaria ekarri beharko du

*Umeak heldu eta helduak umetu*